

danbolin²⁵

2023 uabaila

278^{2h}



**judhit sagardogi
motorraren
taupadarekin eta
perfekzio teknikoarekin
eraikitako bide bat**

BIZITZAN ZORTEA IZAN BEHAR DA

Tarteka atal hau betetzea tokatzen zait. Zorionez, oso tarteka. Atal hau hilero kolaboratzaileen artean egiten dugu txandaka, orain arte Jonek pasatzen zigun urte osoko txanden zerrenda eta hemendik aurrera Oihanek pasako digu. A ze poza herriko jende gaztea proiektura batzen dela ikusteak! Eta ze poza atal hau oso tartean behin tokatzea, horrek adierazten baitu kolaboratzaile mordoxka bagaudela! Onartu behar dut ohore bat dela Danbolineko kide izatea eta bertako orrietan idazteko aukera edukitzea. 25 urte azkar pasa zaizkigu, ea gazte jende honekin beste horrenbeste egiteko gai garen!

Hilabete honetan Denis Ayala herritarraren bitzta apur bat ezagutzeko aukera izango dugu. Brasilgo oihanean jaio zen Denis, eta 25 urterekin Ozeano Atlantikoa zeharkatu eta bizimodu hobea go baten bila atera zen sorterritik. Berak dioen bezala "bizitzan zortea izan behar da; borrokatu ere egin behar da, baina zortea ere behar da" eta berak zortea izan du, sorterria uzteko erabakiak eman baititu fruituak; mila bizipenen ostean Zestoan osatu zuen familia duela 22 urte. A ze zortea izan duena Denisek eta baita guk ere gure artean izateaz brasildarra.

Judhit Sagardogi herritarra apur bat ezagutzeko aukera ere emango digu ale honek. Izan ere, Judhiten pasioa txikitatik automobilismoa izan da. Elgoibarren elektromekanikako erdi mailako zikloa ikasi zuen, eta gero jakin zuen lehiaketetarako ziklo berezi bat zegoela. Bi aldiz pentsatu gabe egin zuen salto eta 18 urterekin Bartzelonara joatea erabaki zuen bere ibilbide profesionala garatu ahal izateko. Motorsport munduak oso maskulinoa eta itxia izaten jarraitzen duela onartu du baina argi dauka: "ez gara gutxiago ezta desberdinak ere". Gaur egun, 25 urterekin, mekanikari bezala bere lekua egitea lortzen ari dela esan daiteke, oraindik gizonak nagusi diren mundu horretan. Ez dira emakume asko bere lanbidean eta horrek ere askotan bere lekua egitea zaildu diola onartzen du Judhitek, baina gaur egun Formula 3ko eta Porsche Supercup-eko mekanikari lanetan aritzen da. Aurten Monacon izateko aukera eduki du Porsche Supercup lehiaketako zirkuituan lanean, eta "erronka hunkigarria" izan dela adierazi dio Danbolini.

Ea eskuartean duzuen alea zuen gustukoa den. Abuztu ona pasa eta festen ondoren berriro herriko postontzi guztietan izango duzue Danbolin!

naiara expósito alberdi



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAK ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argibarrabazialdea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR ETXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPÓSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUTANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA **Kolaboratzaile/erantzutzaile taldea:** NAGORE TELLERIA, JON ARTANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOTZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disenua eta maketazioa: ENEKO ARISTI
Inprimabegia: GERCU (OÑACI).
Lege gordailua: SS-1108/2000
ISSN: 1576-9429



HERRIKIK GERTU...

Aupa Alfon!!! Niretzat ere pasatu dira urte batzuk Zestoara lehen aldiz etorri nintzenetik, 1999an hain zuzen ere, nahiz eta lehenago ere tarteka gurasoekin etortzen nintzen. Eta dudan oroitzapenetako bat plazan zegoen gozotegia, harritzekoa!!!

Hasiera batean, Zestoara etortzeko arrazoia futboleko jokatzea zen. Bertan, kuadrillako Aitor, atezaina, eta hainbat lagun nituen. Egia esan, urte haietan futbol zelaiaren kokapena zela eta jende ugari etortzen zen partidak ikustera eta sekulako giroa egoten zen. Nire kuadrillako zenbait, futbola gustatzen ez zitzaizkien ere, etortzen ziren ondo pasatzen zutelako giroarekin. Zestoan hasiera-hasieratik oso gustura sentitu naiz, egia esan futboleko saiatze ginen gauzak ahalik eta ondoen egiten, baina baita partida ondorengo afariak eta antolatzen ere. Lagun talde polita genuen eta oso ondo konpontzen ginen. Egoera horrek asko errazten zuen kalean jendea ezagutu eta harreman berriak egiteko. Kontuak kontu, 26 urte beranduago hemen jarraitzen dut, ezkontdua eta 2 alabarekin. Lagun batzuek esaten zidaten “Zestura al hijue bizitzea!!!”. Egia esan, ni oso gustura bizi naiz eta herri txikia izateak baditu bere abantailak (lasaitasuna, dena gertu...), nahiz eta desabantailak ere eduki. Niretzako handienak zenbait denda (bizikleta, optika...) eta gaztetatik kirol ezberdinak egiteko (igeriketa, tenisa...) kanpora joan beharra dira, beti kotxearen edo autobusaren mende egon beharra. Baina egia da, baita ere, denden kontua leku guztietan gertatzen ari dela, erosketa ohituren aldaketa dela medio. Eta ulertzen dut herri txikia izanda instalakuntzak hobetzeko edo berriei osatzeko zailtasun handiagoak edukitzea eta denbora gehiago behar izatea, baina nik bi alaba izanda, garrantzitsua ikusten dut.

Bestalde, zestoartuta nagoela adierazten duen beste seinale bat, Alfon, eta handia, Azpeitiko elkarteak laga eta Zestoan Gure Txokoa sartzea izan da. Ondo ezagutzen dudana elkarteak, futboleko makina bat afari prestatu zizkigun Gontxalok!!!

Eta herri aldaketa kontutan hartuta, Gaizka Kortadi etorri zait burura. Ze sentazio oporrak etxe aldetik eta

bitzita kanpoan eginda, Gaizka? Gainera, garai hartako futbol kontuei helduaz, hurrengo urtean duk hire golar eskar 3. mailara igo gineneko 25. urteurrena. Ze oroitzapen dituk?

Joan arrue

pintada.

muralari pintada. Tristura eta haserrearen eragin dituen gure herriko muralari egindako pintadak. Euskararen aldeko keinu xume baina adierazkorra zen horma-irudia, ume zein gurasoz osatutako auzolanean sortua. Tamalez, errespetu faltaz egindako ekintza batek proiektu horren mezua lausotu du. Halako ekintzek ez dute lekuri elkarbizitza eta errespetuan oinarritutako gizarte batean.

Zestoako guraso elkarteak

UDAKO LIBURUA

Uda iritsi da bere zero urdinarekin, eta beroekin, opor usain, gogo eta beharrak ere badatoz. Horrekin batera planak egiteko gogoia ere badatorkigu: hondartza, mendia, terrazetako egonaldi luzeak, herrietako festak... bizipoza, alegia.

Horien guztien artean, liburuak irakurtzeko gogoia ere berpizten zaigu, niri bederen. Berdin da azkenaldian oso irakurle ez banabil ere, baina udarekin batera irakurtzeko grina berriz ageri da. Ohe ondoan zenbat eta liburu dorre handiagoa izan, orduan eta babestuago lo egiten dudana bezala, udako oporraldia askoz ere gogotsuago hasten dut esku artean ondo aukeratutako liburu bat, bi edo gehiago baditut.

Daniel Pennacek, bere *Como una novela* saiakeran, irakurzaletasunaz eta, batez ere, zaletasun ezaz dihardu. Bertan dio, normalean irakurri ditugun liburu ederrenak edota gustukoenak maite ditugun pertsonen gomendatu eta emandakoak direla, eta oso gutxitan eskolak edo kritikak gomendatutakoak. Eta honi heldu nahi diot.

Berak dio, "maitatzea" - gure kasuan "liburu" gustukoena - gure pertsona gustukoenei oparitzean datzala, liburu eta lagunez inguratuta bizi baikara.

Maite dugunak gure eskuetan liburu bat jartzen digunean, bere lerroetan pertsona horixe topatzen saiatzen gara, liburu hori gure eskuetan jartzearen arrazoia aurkitu nahian. Ondoren, liburuak berak harrapatzen gaitu eta gozatzen dugu. Baina askotan denborarekin, liburuaren izenburua aipatzearekin batera pertsona honen aurpegia datorkigu.

Udan ere irakurtzeko aukerak zabalak dira, eleberri eta saiakeratik hasita, aldizkarietaraino (Cuore ez, zeren eta aurrekoan hondartza ondoko kioskoan galdetu nuen, eta urtebete luze omen da argitaratzeari utzi ziotela).

Aukeraketan lagundu asmoz ariketa bat proposatu nahi nizuke. Maite dugun horri liburu bat gomendatu, eta maite gaituenak ere gomendatu diezagula. Horrela, hondartza, mendi edo beste edozein lekutara goazela ere, izango dugu poltsan nahitanahiez sartu beharrekoa. Udan lagun izango dugun "udako liburua".



OPORRAK

Uztailean gaude eta zuetako asko oporretan egongo zarete. Beste asko, aldiz, horiek noiz iritsiko zain, abuztua gertu dela-eta. Esango nuke urte guztia pasatzen dugula oporren zain, edota udako oporren zain, hobeto esanda. Izan ere, gehienok edo udaran hartzen ditugu opor luzeak. Eta oporrak iristear daudenean

nahitaezko galdera: nora zoaz? Badirudi oporretan egonez ezker ezin dela etxean geratu, nahi edo ez kanpora joan behar dugula. Eta kanpora diodanean urrutira esan nahi dut, zenbat eta



urrunago, hobe; eta urruneko leku horrek hondartza badu edo exotikoa bada, zer esanik ez. Ahal den urrutienara joan beharra, horretarako hegazkina hartzea, gure aurrekontuaren zati eder bat oporretan gastatzea... gizartean normalizaturik dugun zerbait da.

Oporrak deskantsatzeko dira, egunerokotik pixka bat atera eta gure buru eta gorputzari atseden emateko. Hori horrela da, baina oporrak igarotzeko modua ere "sortu" egin digu sistema kapitalistak. Sistemak turismo eredu zehatz bat sortzen du, berak nahi dituen beharrak sortuz, guk etengabe kontsumitzen jarraitzeko. Eta horrela, hartuko dugu hegazkina, zeren merke jartzen dute-eta, baita bi-daia motzak egiteko ere. Pentsatuko dugu: "joe, ez dakit noraino joateko hegazkinean joatea hobeto ateratzen zait, denbora gutxiago behar dut, eta gainera autobusez joatea baino merkeago ateratzen zait". Eta joango gara eguzkia hartzera, hurbilena Kanariar Uharteetara-edo, han ere hotelak merke, *txiringitoak* atzerritarrez josita, gu ere haien artean turista azalean jarrita... Eta pensatuko dugu guk ere merezi ditugula horrelako oporrak, eta ez dugu pensatuko merke den hotel horretako langileen lan-baldintzak zer nolakoak diren, *txiringitoetan* lanean ari diren langileenak bezalaxe. Eta bitartean atzerritarrek gure herrialdera etorriko dira, eta kostako etxebizitzak hartuko dituzte alokairuan, ordaindu ezinezko prezioetan.

Turismo ereduaren inguruko hausnarketa egiteko ere tartetxo bat hartu dezakegu oporretan ezta? Ondo pasa oporrak!

erkuden larrañaga

aritz cestona

JUDHIT SAGARDOGI JUARISTI (AZPEITIA, 2000) 25 URTEKO GAZTEA GAUR EGUN ENDOIAN BIZI DA. TXIKITATIK ERAKUTSI ZUEN MEKANIKAREKIKO ETA AUTOMOBILISMOAREKIKO INTERESA, FAMILIAREN (AITAREN ETA OSABAREN) ERAGINEZ. BERE PRESTAKUNTZA ELGOIBARKO INSTITUTUAN HASI ZUEN, ERDI MAILAKO ZIKLO BATEKIN ELEKTROMEKANIKAKO ESPEZIALITATEAN. ONDOREN, MOTORSPORT-EKO MEKANIKARI ESPEZIALIZATUA IZATEKO, BARTZELONAN LEHIAKETA MEKANIKAKO GOI MAILAKO ZIKLO BEREZI BATEAN EGIN ZITUEN IKASKETAK. NAZIOARTEKO LASTERKETA-PROIEKTU HANDIETAN DABIL LANEAN GAUR EGUN: 3 FORMULA (EUROCUP 3) ETA PORSCHE SUPERCUP BEZALAKO KATEGORIETAN, BESTEAK BESTE. BETI ILUSIOZ, ESFORTZUZ ETA GRINEZ BETETA.



**Amets bat pasioz,
motor-olioz
eta determinazioz betea**

OLIO USAINAREN GOZOA

Judhiten automobilgintzarako grina ez zen bat-bateko zerbait izan. Aita eta osaba mekanikaren munduan murgilduta zebiltzan, eta bera txikitatik ibili da erreminta artean, motor-olioaren usain eta metalezko zaraketara ohituta. Dio interesa bere kabuz piztu zitzaioela, baina aitortzen du familia giroak grina hori are gehiago elikatu zuela. “Behin mundu horretan sartuta, asko gustatu zitzaidan. Hasieran kuriositatea zen, baina gero pasio bilakatu da”, azaldu du. Profesional gisa bere bidea hasteko familiaren babesa funtsezkoa izan da. 18 urte zituela Bartzelonara joatea erabaki zuen, ikasteko eta lanean hasteko, eta hori ez zen erabaki samurra: “Bartzelonara joatea erronka handia izan zen, baina etxean neukan laguntza eta konfiantza horrek indarra eman zidan salto egiteko”, dio.

LEHIAKETETARA IRITSI AURREKO PAUSOAK

Lehiaketa-talde batekin izandako lehen kontaktua ez zen zuzenean pistan izan. Hasieran, kontzesionario batean aritu zen lanean, tailerreko mantentze-lan eta eguneroko konponketetan, baina barruan sentitzen zuen lehiaketara iristeko gogoia. “Gero eta gehiago hurbildu nahi nuen lehiaketara, baina banekien bidea luzea izango zela, eta pauso bakoitza garrantzitsua zela”, azpimarratu du Sagardogik.

Formazioa oso zaindua izan da bere kasuan: lehenik, Elgoibarren elektromekanikako erdi mailako zikloa egin zuen, eta gero lagun baten bidez jakin zuen bazela Katalunia aldean lehiaketetarako ziklo berezi bat. “Bi aldiz pentsatu gabe joan nintzen eta lehen momentutik jakin nuen hori zela nire bidea”, azaldu du gazteak.

TAILERRAREN ETA LASTERKETAREN ARTEKO OREKAN

Judhiten egunerokoa bi espaziotan banatzen da: tailerra eta lasterketa. Mundu bereko bi egoera oso desberdin. Halaxe dio Judhitek berak. “Karreretan presioa handiagoa da, denak perfektua izan behar du. Sesioak, entrenamenduak, sailkapenak... gauza bakoitza milimetrotara neurtzen da. Tailerrean lasaiago egiten da lan, baina arduraz. Denak prest egon behar du hurrengo irteerarako”, zehaztu du. Lasterketa egunetan ingeniariekin, pilotuekin eta



gainerako talde teknikoarekin lan egiten du, eta uneoro azken orduko ustekabeak konpontzeko prest egon behar da. “Batzueta kotxeari azken uneko ukituak eman behar dizkiozu eta presiopean ari zara. Adrenalina handia da”. Aitzitik, tailerreko lana beste erritmo batekin egiten da: mantentze-lanak, aldaketak, konponketak... baina beti hurrengo erronka teknikoari begira.

Lehiaketaren testuinguruan bizi da eta talde oso bateko engranajearen parte da. Baina 3 Formulako eta Porsche Supercup-eko lan dinamikak oso desberdinak dira. Formula eta turismoa. Teknikoki, desberdintasunak nabariak direla dio. “Formulek detaile txikienak ere zaintzen dituzte. Pentsa, pegatina bat gaizki jarrita egoteak aerodinamikan eragin dezake. Gauzak azkar ateratzeko pentsatuta daude. 6 torlojurekin motorra atera dezakezu. Turismoan, berriz, gauzak handiagoak eta astunagoak dira, konplexuagoak. Kaleko kotxe batzuk dira, azken batean, karreratara egokitu direnak”.

ESKUAK ZIKINTZEA MAITE DU

“Ingeniaritza egiten saiatu nintzen, baina ikusi nuen neure burua ez zela ordenagailuaren aurrean, baizik eta autoaren azpian”, azaldu du. Mekanikari gisa, Judhitek lan praktikoa maite du, hor sentitzen da eroso. Piezak ulertzea, konponketak egitea, sistemak errespetatzea... horixe du benetako pasioa. Kotxeen motorrak. “Niri kotxearen bihotzarekin lan egitea gustatzen zait. Motorrean gauza txiki batek gauza handi bat eragin dezake”, azpimarratu du.

Teknologiarekin lasterketako kotxeen mundua oso azkar eboluzionatzen ari da, uneoro gauza berriak asmatzen dituzte, eta ez dira eskolan ikasten diren gauzak, “horregatik da ezinbestekoa dakitenei kasu egitea, elkar laguntzea eta ikastea. Entzuten jakin behar da, gauza berriak daude etengabe, eta taldeko kideengandik asko ikasten da. Ezin zara inoiz egoskorra izan”. Autoen garapen teknologikoak liluratzen du, baina Judhit “bereziki gustura” sentitzen da kotxea ukitzen duen momentuan.



Hungaroring zirkuitoa, Budapest

GALDERA AZKARRAK

Saillapena ala lasterketa? Lasterketa
Pista ala rally? Pista
Laneko maniak? Pilotoa lotzeko era, kotxeari buelta osoa ematea parrillan
Pista gustukoena? Bartzelona, gertutasunagatik
Formulak ala turismoak? Turismoak
Kotxe gustukoena? Porsche GT3 Cup
Idoloa? Mikel Azkona, gertutasunagatik
Onena? Presiopean lan egitea gustuko dugula
Txarrena? Ordu asko, etxetik urrun, tentsio handia

BEHETIK GORA, ARDURAK ETA ERRONKAK BETEZ

Kotxe bakarra du orain bere gain eta kotxe horren lehen mekanikari bezala aritzen da. Hori du ardura. Baina gustatuko litzaioke ardura altueneko mekanikari bezala aritu eta kotxe gehiago edukitzea bere gain. “Ardura handiagoa, erabaki gehiago, presioa gora... baina motibagarriagoa!”.

Aurten Monakon bizi izan duena ere ez da makala. “Ametsetako zirkuitu bat” dela dio karreren munduan, eta aurten, bertan izateko aukera izan du Porsche Supercup lehiaketan. Gainera, lehiaketa hori 1 Formula lehiaketarekin batera joaten den karrera izanda, bertan egotea erronka “hunkigarria” izan da berarentzat. “Zirkuituan, pistan zein kolean egotea Monako bezalako hiri batean izugarria da karrerak gustuko dituen edonorentzat”, argi dio Judhitek. “Eta gainera 1 Formulakoekin batera...”. Zirkuitu historikoa da, ezin uka, eta oraindik ere kosta egiten zaio bizitako zirrara azaltzeko hitzak topatzea. Bizitzako orain arteko erronkarik handiena bezala definitu du.

Hala ere, beste oroitzapen berezi bat badu Bartzelonan bertan, Porsche GT Open txapelketan. Pilotuak istripua izan zuen eta gau bakarrean konpondu behar izan zuten auto osoa. “Lo egin gabe, baina biharamunean pistan atera zen eta 9. postua lortu genuen. Hor ikusten da benetan beharrezkoa zarela eta lanaren emaitzak nolakoak diren. Momentu horiek ez dira inoiz ahazten”, azaldu du harro.



Red Bull ring zirkuitoa, Austria

EMAKUME BAT MOTORREN MUNDUAN

Judhiten ibilbidea ez da erraza izan, dena den, batez ere Motorsport munduak maskulinoa eta itxia izaten jarraitzen duelako. Bere lehen urratsak segurtasun gabeziarekin gogoratzen ditu: "Zeure burua txiki sentitzen duzu, eta ez laguntza faltagatik, baizik eta barrutik pentsatzen duzulako mutila izan ezkerro errazagoa izango zela; lekuz kanpo zaudela".

Aurreiritziekin topo egin du, batez ere indar fisikoari dagokionez, baina gaur badaki kontua ez dela indarra bakarrik, baizik eta "burua, teknika eta pazientzia".

peru garbataia asbilleros

Erreportaje hau idazten ari naiz Bartzelonatik bertatik, Judhit-ekin egon berritan, eta amaitu berria da ekaina. Guztiok dakigun (edo jakin beharko genukeen?) bezala, ekaina harrotasunaren hilabetea da (LGTBIQ+ eta kolektiboko guztien aldarrikapen hilabetea). Bartzelonan nagoela, bere lankidea den Gil-ekin elkartu gara eta aukera paregabea iruditu zait (LGTBIQ+) kolektibokoa den norbaiten iritzia sartzeko erreportaje honetan.

Judhitek dio, aurreko taldeetan ez duela inoiz kolektibokoa den norbaitekin lan egiteko aukerarik izan, baina aurreko taldeetara etorri den mutil bat (aipatu berri dugun Gil). "Egia esan elkarri asko lagundu diogu eta hori ikusteak asko betetzen nau".

GIZONEN MUNDUA IZATEN JARRAITZEN DUEN HONETAN NOLA LORTU DUZU ZEURE BURUA, ZAREN BEZALA ERAKUSTEA ETA ONARTUA IZATEA?

Hasieran zaila izan zen, gauzak entzuten dituzulako, jendearen esperientziak, jasandakoak... baina ez duzu imajinatzen bizi duzun arte. Adibidez, talde batetik alde egitea erabaki nuen, oztupo ugari jarri zizkidatelako. Batzuetan ez naiz baliagarri sentitu haiek bezalakoa ez izateagatik. Gauza handiak baino, detaileak ziren gehiago, baina ni naizen bezalakoa izan eta irekitzeko, nahiago izan nuen gustuko nuen beste talde batera joan. Dena den, talde berrian ere, hasieran lanorduetan itxurak egin nituen; jendea ezagutu nahi izan nuen lehendabizi, seguru sentitu, benetan naizen bezalakoa erakutsi aurretik. Tamalez, zure etorkizuna jokoan jartzen duzu nolakoa zaren erakusten duzunean eta besteen erreakzioa nolakoa izango den ikusi behar! Etorkizunari ate asko itxi diezazkiokezu, mundu hau nolakoa den eta gaur egun nola dagoen ikusita. Triste da, baina, oraingo, horixe da dagoena.



Monako Zirkuitoa, Italia

JUDHIT ETA GIL, MOTOR MUNDU MASKULINOAN BI FIGURA "EZ-OHIKO".

ZER DA ZURETZAT BION ARTEKO HARREMANA?

Judhitek asko lagundu dit. Bera taldean egotea izan zen ekipo hori gustuko izatearen arrazoietakoa bat. Bidea pixka bat irekitzen du taldean emakume bat egoteak, eta seguruago sentiarazten zaitu. Emakume bat taldean egote hutsa ez da berme segurua, noski, baina laguntzen du eta, nire kasuan, bide luzea ireki eta lagundu dit. Benetan eskertuta nago guztiagatik.





SANTIO-SANTA ANA
ARROAGOIA

Imajinatzen duzuna
baino askoz gehiago
dago euskaraz

PRIMERAI

EUSKAL MUNDUARI IREKITAKO LEIHO DIGITALA



EUSKAL
ENCODINGS




ZER NON IKUSI

Aprobetxatu udako arratsalde euritsuak
euskarazko edukiez gozatzeko!



**“BIZITZAN ZORTEA
BEHAR DA; BORROKATU
BAI, BAINA ZORTEA ERE
BEHAR DA. ETA NIK
ZORTEA IZAN DUT”**

DENIS AYALA DO ESPIRITO SANTO 1975EAN JAIO ZEN BRASILEN, 22 URTE DARAMATZA ZESTOAN BIZITZEN ETA, HASIERAN, IZASKUN INDAMENDIREN SENAR GISA EZAGUTZEN GENUEN. CORUMBÁ HERRIAN JAIO ZEN, BRASILGO OIHANEAN. 99.000 BIZTANLE DITU CORUMBÁK, BAINA "HERRI" DEITZEN DIO DENISEK. HANDIK HIRIBURURA LEKUALDATU ZEN, AUKERA BERRIEN BILA, ETA 25 URTEREKin OZEANO ATLANTIKOA GURUTZATZEA ERABAKI ZUEN; PORTUGALERA JOAN ZEN LEHENIK ETA ZESTOARA AZKENIK. GUREKIN BIZI DA ORDUTIK.



Turismo-gida lanetan, Portugalen bizi zela

Brasilen jaio zinen.

Corumbán jaio nintzen, Brasilgo erdialde-mendebaldean. Bolibiarekin mugatik zortzi kilometrora. Askotan pentsatu izan dut Bolibiatik hain gertu bizita gaztelania pixka bat ere jakin nezakeela, baina ez nuen ezer ikasi han.

Esan bezala, mugako herria da nirea. Bolibiarekiko mugaz gain, pixka bat beheraxeago, Paraguayo muga dago. Oihanean dago herria, zingirak daude eta ibai handi bat ere bai: Paraguay ibaia. Oso polita da. Fauna handia dago, animalia asko, arrain asko. Moskito eta bitxo ugari, eta hezetasun handia ere bai. Zer esanik ez beroa, hura da beroa! Neguko (han ekainean eta uztaillean izaten da negua) pare bat astetan jaisten da pixka bat tenperatura; gainerakoan, neguan 30-33 gradu egiten du eta udan 45-50 gradu, gogorra da. Hiria harrien gainean dago eraikita eta, gauetan freskatu arren, lurrak beroa botatzen jarraitzen du.

Zertatik bizi da jendea?

Abeltzaintza da jarduera nagusia; batez ere behiak hazten dira. Ustiategi asko dago. Nekazaritzarik apenas dago, nahiz eta lur zatiren bat duenak artoa ereiten duen. Corumbá denboran geldirik geratu da, ez da garatu, orain dela 50 urte bezala jarraitzen du.

Nolakoa da zure familia?

Ama, aita eta bi anaia ditut; ni naiz zaharrena. Ni auzo batean hazi nintzen eta umetan ez ziguten uzten kalera ateratzen, ez zelako segurua. Lau paretan artean, burbuila batean be-

zala bizi ginen. Aitak etxetik kanpo egiten zuen lan eta amak hezi gintuen. Ikastea exijitzen zigun amak, eta horixe egiten genuen. Txikitatik gustatu izan zait arrantza, eta ateratzen uzten zidan bakoitzean joaten nintzen arrantzatzerara.

Oraindik ere ez da segurua?

Orain okerragoa da egoera, azken finean, dirua falta denean, oinarritzko beharrak ase gabe daudenean... familia egituraturik ez daukan jendea dago, eta horietako asko 10-11 urterekin trafikatzan hasten dira, drogatzen, pistolekin... Konplikaturia da egoera.

Amak ikastea exijitzen zizuela esan duzu, zer ikasi zenuen zuk?

Batxilergoa bukatu nuen, 18 urtera arte eta gero armadan sartu nintzen. Esan dizudan bezala, nire herrian ez



Zerbitzu militarra egiten, 18 urterekin



Mekanikari lanetan, Portugalen

dago industriaririk, eta irteera posible bat zerbitzu militarra egitea da. Jatekoa eta lo egiteko lekua bermatzen dituzte bertan. Nik marinan eman nuen izena, Paraguay ibaiaren bueltan, eta urtebeteko formazioa egin nuen. Gustura nengoen eta bertan jarraitu nahi nuen, baina ez nituen nahikoa puntu lortu.

Eta etxera itzuli zinen?

Bai, herrira itzuli nintzen. Armadan sartu nintzenerako lanean ari nintzen, eta itzulera lan huraxe neukan zain, arropa denda batean.

Arropa denda utzi eta gero, ehorztetxe batean ere egin nuen lan, heriotza segurua da. Urtebete inguru aritu nintzen, hilotzak makilatzen eta abar... eta han nengoe-la, nire nagusia zenak kobratzaile lana eskaini zidan. Jendeak bizitza aseguruak zeuzkan garai hartan ere, baina ordainketak eskura egiten ziren. Nire egitekoa, etxetz etxe joatea izaten zen, kuotak kobratzea.

Frac-dun kobratzaile itxurako zer bait izan zinen, orduan?

Bai, antzerako zer bait. Gainera, ehorztetxeko lan haren harira antzerako beste lan batean hasi nintzen. Kontua da oso ohikoa zela altzari dendetan erosketak epeka egitea. Jendeak aurreneko hiruzpalau kuota ordaindu eta ordaintzeari uztea ere ohikoa izaten zen, eta hori arazoa zen denda haienentzat, eta kuota haiek kobratzeko kontratatatu ninduten. Etxez etxe joaten nintzen lan hartan ere, eta ordaintzen zuen bezeroko komisioa kobratzen nuen nik. Ondo irabazten nuen, baina bueltara pasatzen nuen egun osoa, udako 45-50 gradutan. Garai hura ere bukatu zen, ordea, Gobernuak hainbat lege berri atera eta errentagarria izateari utzi baitzion lanak.

Eta zer egin zenuen orduan?

22 urte nituen eta zor batzuk ere baneuzkan ordurako. Gainera, gurasoenean bizi nintzen eta independentzia gogoia ere baneuen. Nire herrian aukerarik ez nuela ikusita, hiriburura, Campo Grandera joatea erabaki nuen. Bakarrik joan nintzen

eta gogorra izan zen, han gosea pasa nuen; hortzik ez, bero egiten duelako [kar, kar]. Lana ere aurkitu nuen, karteldegia enpresa batean, komertzial, eta jende asko ezagutu nuen. Bizitza honetan zortea eduki behar da, borrokatu bai, baina baita zortea izan ere. Eta nik zortea izan nuen.

Lan haren harira ezagutu nuen enpresa-gizon bat, eta harekin hasi nintzen lanean. Hark bere familiako bazkari eta afarietara gonbidatzen ninduen eta, kasualitatez, Portugalen bizi zen jendea ezagutu nuen. Ozeano Atlantikoa gurtzatzeako ideia bueltara hasi nintzen, Portugalen ondo irabazten zela esaten zuten, eta niri momentu hartan horixe axola zitzaidan.

Eta Portugalera joan zinen.

Bai, aurrena amarekin hitz egin nuen; negar pila bat egin zuen, baina azaldu nion bizimodua hobetzeko zela. Beti izan dut helburu hori bizitzan, hobetzea. Gogorra izan zen, baina lortu nuen.

Noiz iritsi zinen Portugalera?

2000ko urriaren 18an iritsi nintzen Lisboara, eta polizia portugaldarrak aireportuan atxiki ninduen, balizko immigrantea izateagatik. Turista gisa etorri nintzen; ordu pila bat eduki ninduten "preso", galdera berdinak egiten zizkidaten behin eta berriz. Baina zortea izan nuen; zortea behar da bizitzan. Azken polizia goizeko lauretan etorri zen, hasi zitzaidan esaten kasualitatea zela biok martxoaren 19an jaioak izatea, San Jose egunez... datez eta zodiakoaz hitz egiten aritu ginen. Azkenean, esan nion neka-neka eginda nengoela eta deportatu behar baninduen deportatzeko, bukatu egin nahi nuela... eta pasaporte estanpatu zidan eta Portugalen sartu ahal izan nuen.

Nolakoa izan zen hasiera Portugalen?

Nire aitaren lagun baten etxean egon nintzen hasieran eta han lortu nuen lehen lana, nahiz eta ez neukan paperik. Kosta zitzaidan klimara eta erritmora egokitzea. Hizkuntza ere, portugesa izanagatik, desberdina zen. Jende haren bidez autobus

**“TXOKO TABERNAKO
BARRAN LUIXI [AZKUE]
GALDETU NIOLA EA ZER
ESAN NAHI ZUEN
“EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA” ZIOEN
BANDEROLAK. LUIXEK
IZASKUNI ESKATU ZION
AZALDU ZIEZADAN, ETA
HALA EZAGUTU GENUEN
ELKAR”**

► enpresa batean lortu nuen lana, mekanikariari laguntzen hasi nintzen, ofizioa ikasten. Lauzpabost hilabete paperik gabe lanean pasa ondoren, lanerako baimena lortu nuen. Enpresaren pabiloi bertan bizi nintzen, hartara ez neukan alokairua ordaindu beharrik.

Enpresak bidaiak antolatzen zituen, jubilatuentzat batik bat. Bertan bizi nintzenez, asteburuetako irteeratan beraiekin joatera gonbidatzen ninduten gidariekin, eta hala hasi nintzen Portugal eta Espainia ezagutzen, baita jende pila bat ere.

Bidaia haietan erakustaldi modukoak egiten zituzten produktuak saltzeko (masajea ematen zuten besaulkiak, kazuelak...). Gidaria errepideko hotelen batean geratzen zen, eta han egoten zen saltzaileraren bat erakustaldia egiteko pronto. Eta saltzaile haiek ezagutu nituen. Haietako batek, João, berarekin lan egitea proposatu zidan.

Eta zer egin zenuen?

Lanez aldatzea erabaki nuen, eta Setubaleetik (Lisboa ondoan) Valencia do Miñora joan nintzen bizitzera, Galiziako mugan. Beltzean egiten nuen lan, eta papearak galdu nituen. Dena den, Portugal, Espainia, Frantzia... Veneziara ere joan nintzen egoera irregularrean.

Frantziarako bidaietako batean, Lurdestik bueltan, Hotel Arocenatik pasa ginen, baina ez ginen bertan geratu. Ez dakit zein urte izango zen.

Horretan ari nintzela, João azazoren bat izan zuen lan egiten genuen enpresarekin, eta bota egin zuten. Nik harentzat lan egiten nuenez, ni ere lanik gabe geratu nintzen. Denbora batera, Joãoarekin lan egiten zuen beste saltzaile batek lana eskaini zidan... eta bidaietara itzuli nintzen.

Orduan ezagutu zenuen Zestoa?

Bai, bigarren gizon harekin lanean ari nintzela, Hotel Arocen an lan egiteko aukera sortu zitzaigun. Ekainean etorri nintzen hona, jublatu portugaldar pila batekin; gau batzuetan kalera ateratzen ginen, lana bukatu ondoren.

Eta zer iruditu zitzaizun herria?

Ezagutu nituen lehen pertsonak *Kirri* [Asier Acedo] eta *Pellua* [Pello Gerenabarrena] izan ziren. Izaskun [Indamendi] ere orduan ezagutu nuen; nik torero itxura neukan, trajea, gorbata, ilea gominarekin... Gogoratzen dut Txoko tabernako barran Luixi [Azkue]

galdetu niola ea zer esan nahi zuen “Euskal presoak Euskal Herrira” zioen banderolak. Luixek Izaskuni eskatu zion azaldu ziezadan, eta hala ezagutu genuen elkar.

Gero, badakizu... hemen kuadrillak zirkulu itxiak izaten dira hasieran, eta zaila izan zen, baina denborekin kuadrillakoak ere ezagutu nituen. Hoteleko lana amaitzen nuenean Izaskunekin geratzen nintzen; herria erakusten zidan, inguruak...

Lehen aldi hartan hilabete inguru pasa nuen Zestoa, eta bueltatu egin behar nuen. Dena den, irailean herriko jaietarako itzultzeko asmoa nuen, eta irailean arte agurtu nuen Izaskun. Ordurako bagenituen mugikorrak, eta hala jarraitu genuen kontaktuan.

Etorri zinen festetara?

Ez, ezusteko bat tarteko, ezin izan nuen etorri. Dena den, handik gutxira ezkondu ziren Juantxo [Olaizola] eta Igone [Rezabal], eta ezkontzara gonbidatu ninduten. Ezkontza hartan egon nintzela gogoratzen naiz, eta hemen pasa nituen Gabon haiek ere.

Ordurako hemen geratzeko ideia sortzen ari zen nire buruan, eta Izaskunekin hitz egin nuen serio; azaldu nion nire egoera, paperik gabe, denbora gutxi zen ezagutu ginela... Izaskunek etortzeko esan zidan, baina airean geratu zen guztia.

Etorri zinen, ordea.

Bai, ez nintzen berehala etorri, Portugalen kontu batzuk konpondu, bukatzekoak bukatu... Rodrigo [Machado] brasildarra Zestoa bizi zen ordurako, eta nik Hotel Arocen an ezagutu nuen. Hari deitu nion, ea bere etxean gera nintekeen galdezka. Baietz esan zidan eta, hala, Izaskuni abisatu gabe etorri nintzen Zestoa. Iluntzean iritsi nintzela gogoratzen dut eta gauzak Rodrigorenean utzita, Izaskunen etxera abiatu nintzen. Ez nekien zein zen tinbrea, eta telefonoz deitu nion, eskutitz bat bidali nahi niola eta helbidea eskatzuz; esan orduko jo nuen tinbrea, eta...

Hala kontatzen du Izaskunek momentua: “Ni Denisekin ari nintzen telefonoz, nire logelan. Goenkale ikusten ari ziren ama, amama eta ahizpa, pijametan. Eta tinbrea. Amak ireki zuela atea uste dut eta laurok mutu geratu ginen. Hitzik gabe. Amamak hautsi zuen isiltasuna: ‘Mari Tere, atera zartagina, honek goseaz edukiko du eta’. Amamak xerra, arrautza eta patata frijituak prestatu zizkion... eta hori izan zen gure etxeko lehen harrera”.

Nolakoa izan zen hasiera?

Rodrigoren etxean pasa nituen hilabeteren batzuk, baina ez nuen lanik aurkitzen, ez neukan paperik eta. Ez zen erraza izan. Ordurako Izaskunek erosita zeukan gure gaur egungo etxea, baina eraikitzen ari ziren oraindik. Maria Angeles [Goya] eta Mitxelek [Orbegozo] beraien Zubimusuko etxea eskaini ziguten etxea bukatu bitartean bizi gintezen.



Izaskunekin, Corumbá



Zestoara etorritako lehen brasildar kuadrila, Lau Iturri elkartean



Nara alabarekin, Ipintza elkartean



Dena den, frustratuta nengoen, bizitzarekin zer egin pentsatzen, lanik gabe... eta Izaskunek ezkontzea proposatu zidan, gehienbat paperen kontua konpontze aldera. Ezagutu eta bederatzi hilabetera ezkondu ginen, eta 22 urte daramatzagu ezkontuta. Dena den, ezkondu aurretik lan bat aurkitu nuen, Izaskunen Debako familiaren bidez, igeltsero laguntzaile.

Paperak lortu zenituen, orduan?

Bai, ezkondu ondoren Brasilerara bueltatu behar izan nuen paperak egitera. Handik bueltan Debako familiartekoarekin jarraitu nuen lanean, baina kontratuarekin. Gerora, ordea, gure alaba jaio zen, eta ordu askotako lana zen hura, goizean goiz hasi eta berandu bukatzen nuen. Lanez aldatzea erabaki nuen.. Zazpi urte egin nituen fundizioan, baina krisia etorri zen, enpresa itxi, eta lanik gabe geratu nintzen.

Zer egin zenuen orduan?

Sei hilabete pasa nituen langabezian, eta formaziorik ez neukanez, ez nuen lanik aurkitu. Desesperatuta nengoen. Izaskunekin hizketan, zerbait ikastea erabaki nuen. Kontua zer ikasi erabakitzea zen, 42 urterekin eta daukadan buru gogorrarekin. Garai hartan Elias Lizarburu ezagutu nuen, hark Elgoibar-ko Mekan [lanbide eskola] egiten zuen lan eta asko lagundu zidan. Hala, "Metal Eraikuntzak" goi mailako zikloa egin nuen. Bi urtez egon nintzen ikasten, asko kosta zitzaidan, baina Eliasek eta Aloñak [Iturzaeta] pila bat lagundu zidaten, larunbat eta igandetan beraien etxera joaten nintzen eskolako lanak egitera.

Eta sektore horretan aurkitu zenuen lana?

Titulua lortu eta bi astetara Itziarko enpresa batetik deitu zidaten, eta urte eta erdi egin nuen han. Izan ere, Zumaiako beste enpresa batetik deitu zidaten orduan eta, bestelako sektorea zen arren, aldatzea erabaki nuen. Zortea behar da, borrokatu bai, baina zortea ere eduki behar da. Gaur egun Zumaiako enpresa hartako jabeetako bat naiz, bazkide batekin. Ondo doakigu, lan asko daukagu, eta gustura gaude.

Brasildarra, baina bizitza erdia Brasildik kanpo, beraz.

Bai, eta hasierako urteetan asko elkartzen ginen Zestoako brasildarrak. Haiekin daukat harremanik handiena gaur egun ere; Rodrigo, Joberson, Junior... Sustraiak mantentzea garrantzitsua da, baina bizi zaren herriaren parte izatea ere bai. Portugalen, Setubalen bizi nintzenean, beste bost brasildarrekin bizi nintzen. Geure artean erlazionatzen ginen, eta zirkulua ez zen hazten... eta bizitzan aurrera egiteko, harreman berriak egitea funtsezkoa da. Zestoan, adibidez, elkarte bateko bazkide egiteak lagundu zidan horretan. Badira urte batzuk Ipintza Elkarteko bazkide naizela. Hor hasi nintzen Denis izaten, Izaskunen senar brasildarraz harago.

nerea odríozola larrañaga



XABAT ETA XELA TXAPELDUN TXOKOKO TXAPELKETAN

Xabat eta Xela bikoteak eskuratu dute aurtengo Txokoko Pilota Txapelketako txapela, hilaren 5ean jokaturako finalean Txapeitarrak 30-18ko emaitzarekin garaituta. Finalaren atariko lehia, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatu zen; Oier eta Kixkurak eskuratu zuten hirugarren postua, Xora eta Andu 30-21 mendean hartuta.

Giro paregabea nagusitu zen Gurutzeaga frontoian; zalez bete zen pilotalekua, eta orain arteko ikuslerik gehien bildu zen partida erabakigarri hauetan. Jai giroan murgilduta, amaiera biribila izan zuen aurtengo txapelketak.



AKOAKO BIRA BERRIZ ERE ANTOLATZEAK ERAKUTSI DIGU ZENBAT LAN EGIN BEHAR DEN HALAKO EKIMEN BAT AURRERA ATERATZEKO

Kirolak gero eta presentzia handiagoa duen gizarte honetan, askok bihurtu dute ariketa fisikoa ohitura hutsetik gozamenerako bide. Horren erakusgarri dira herriko hiru gazte, kirol zaletasunetik haratago, Akoako Bira mendi lasterketa biziberritzeko ekimena martxan jarri baitute.

Herritarrentzat ezusteko atsegina izan da berriki jakitea zenbait gazte Akoako Biraren itzuleraren antolakuntzan buru-belarri dabiltzala. Ez da ohikoa gaztetxoak halako egitasmo baten ardura hartzen ikustea, eta horrek jakin-mina eta interesa piztu ditu herritarren artean.

Zer eta nola antolatzen ari diren jakiteko, zuzenean hiru protagonistengana jo dugu: Jokin Zigaran (2009), Eneko Albizu (2009) eta Ander Lizarburu (2008).

[Irakurri elkarrizketa osorik gure atarian]



BEDUA JATETXEKO LAN BALDINTZEN INGURUKO SALAKETEN HARIRA, "ERRESPETURIK GABE, GARRASIKA ETA BURLA EGINEZ HITZ EGITEN ZIGUTEN"

Bedua jatetxeak lanerako jendea behar duela adierazten duten kartelak maiz jartzen ditu gure herriko kaleetan. Azpeitiko kaleetan ere kartel hauek ikusita, Elkar-ekin taldeak jatetxean lan egin dutenen lekukotzak bildu zituen, eta uztailaren erdialdean argitara eman zuen jasotako informazioa. (...)

Salaketa larri hauek ikusita, eta jatetxeak gure herriarekin duen gertutasuna kontuan hartuta, Bedua jatetxean lan egin zuen herritar batekin bildu gara. Elkar-ekin taldearen testuan jasotakoaren egiazkotasuna berretsi du honek, eta bere bizipenen berri emateko prest agertu da.

[Irakurri albistea osorik gure atarian]



900 HERRITAR INGURUK SINATU DUTE DONOSTIA OSPITALERA ZUZENEKO AUTOBUSA ESKATZEKO EKIMENAREN ALDE

'Doako parking-a denontzat' plataformak sinadura bilketa jarri zuen martxan ekainaren amaieran, Donostiako Ospitalera joateko zuzeneko autobus zerbitzua eskatzeko helburuarekin. Ordutik, 900 sinadura inguru jaso dituzte, kalean eta tabernetan bildutakoak kontuan hartuta. Orain, eskaera ofiziala egiteko tramiteak hasiko ditu plataformak.

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak



943 062 861



Teknologia, liburu, paper denda



Etixerako osagarriak



Arropa eta oinetakoak



Edertasuna eta ongizatea




Irakur




Bai, ni auzo txiki batekoa naiz, eta horregatik, udako festetan auzo bate-tik bestera ibiltzen naiz. Arroabeen burubelarri sartuta egoten naiz, eta Narrondora, Arroa-gora, Endoiara edo Aizarnara ere joa-ten naiz... Zestoa-ko bailara txiki guz-tietara joaten saiatzen naiz. Txiki-tatik joaten naiz festetara, eta orain, amona nai-zenetik, jarraitzen dut ohitura horre-kin.

begoña urbieta
67 urte




Ni Arroaerrekako biztanle izanik, on-do dakit ze ga-rrantzitsua den au-zo txikiei babes-a ematea; horrega-tik, ahal dudanean inguruko auzoeta-ko festetara joaten saiatzen naiz. Nor-malean parranda-rako joaten banaiz ere, ekintza inte-resgarriren bat da-goenean ere bai.

lorea ostolaza
24 urte



Bai, normalean jo-aten naiz, bai pa-rrenda egitera eta baita ekintza inte-resgarriren bat dagoenean ere. Gainera, ni Akoa-ko auzotarra nai-zenez, auzo txikie-tako festak eta ekimenak babes-tea nahiz horietan parte hartzea ga-rrantzitsua dela iruditzen zait.

kepa korta
17 urte



Gaur egun ez dut auzoko festetara joateko ohitura handirik, nahiz eta lehen maiz joaten ginen, batez ere parranda egitera. Orain, noizbehinka umeentzako ekin-tzak daudenean jo-aten gara, gehiene-tan puzgarrietara.

garikoitz tabasco
44 urte



(Erantzuleak guztira: 109)



■ bai, batzuetan joaten naiz
■ bai, beti joaten naiz
■ oso gutxitan joaten naiz
■ ez, ez dut ohiturarik

Kontenedoreak maiz gainezka egoten dira eta zabor poltsa ugari kanpoan pilatzen dira. Zein da irtenbidea?



Saskibaloiko kanasta berriak jarri dituzte Arroabeen.

guzuz

ABUZZTUA

sanlorenteko jaiak

10 IGANDEA

Goizeko 11:00etan meza. Ondoren, ume jolasak, hamaiketakoa eta bertsolariak. Arratsaldean, kantariak.

12 asteartea

Profesionalen arteko pilota partidak udal kiroldegian, 19:00etan. Lehenengo partida: Egiguren V - Gabirondo vs. Alberdi II - Ugartemendia. Bigarren partida: Artola - Martija vs. Larrazabal - Rezusta.

29 OSTIRALA

Pettiren kontzertua Portalen, 19:00etan.

amabirjinak aizarnan

14 OSTEGUNA

Arratsaldeko 18:00etan txupinazoa botako dute. Segidan, karropoteoa bertako gazteen eskutik. Gaueko 21:00etan herri afaria. 00:00etan Olgetan erromeria eta 3:30ean DJ Patx.

15 OSTIRALA

Amabirjin eguna. Goizeko 11:45ean pilota partidak jokatu dira. Lehenengo partida: Lizarralde - Telleria vs. Bergara - Aranburu. Bigarren partida: Eritz Egiguren - Apezetxea vs. Lizarralde - Paul Egiguren. Hirugarren partida: Aimar Egiguren - Urtzi Egiguren vs. Txapei - Alonso. Bitartean, 12:30ean, Meza nagusia. Arratsaldean, 18:00etan herritarren arteko herri kirolak. Gauean, 22:30ean, Izer eta Alabier.

16 LARUNBATA

Goizean zehar Oilasko biltzea. 11:00etan, ume eta gaztetxoek krosa eta 12:00etan, paellada. Gauean, 22:30ean Obaneuke erromeria eta 3:00etan, DJ Patx.

17 IGANDEA

Umeen eguna. Goizean, 11:00etan, umeen txupinazoa eta jarraian, zirku tailerra. 11:30etan, jubilatuen hamaiketakoa. Eguerdiko 13:00ean, umeen bazkaria izango da (aurrez izena emanda). Arratsaldean, 17:00etan hasita, ginkana. 18:30ean, txokolatada eta ondoren, Jon Urbieta.

30 LARUNBATA

Gazteen eguna. Goizean, Ondarbasoko igoera, ondoren, herri bazkaria eta gauean, kontzertuak.

31 IGANDEA

Edadetuen eguna. Omenaldia, bazkaria, herri kirolak, txistularien alardea...

IRAILA

Amabirjinak zestoan

05 OSTIRALA

Txupinazoa, dantzaurrea, umeen bazkaria, tailerrak, bertso-poteoa, poniak, suzko zezena, musika...

06 LARUNBATA

Kuadrilen eguna; paella...

07 IGANDEA

Zekorketak, Gurea Kultura, musika...

08 ASTELEHENA

Amabirjin eguna. Diana, meza nagusia, dantzaurrea, bandaren kontzertua, zekorketa, Gurea Kultura, Zahagi Dantza...



FEREKI

BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi 695 721 015 Isidro Fernandez 690 108 996 Joan Fernandez 667 537 892

Taxi Zestoa



9 Eserleku

Eneko 603 394 729

Joseba 670 431 906

Lurja Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B- 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDATZIOA

943 147 019

sjzuzendaritza@gmail.com

ESKELA DIGITALEN ZERBITZUA

doan

DANBOLIN.EUS ATARIAN

Eskela jartzeko zuzeneko bidea:


* Danbolinako telefonora deitu (722 609 265)

* info@danbolin.eus helbidera idatzi



IEUR!

ZERBAIT BEHAR?



JAN BAPO!



HARRÉS!

Gosariak, bazkariak, afariak eta gehiago!
Gurutzeaga kalea 11-13 ZESTOA **Tlf 943 323 894**

 @harresizestoa